

Reina Sofia Museo Nazional eta Arte Zentroaren Artxibo Nagusia 2008an jarri zuten martxan, bertan lanean hasi zirenean Artxibo, Liburutegi eta Museoetako Laguntzaileen Kidegoko profesionalak.

Liburutegi eta Dokumentazio Zentroan txertatutako zerbitzu gisa antolatuta dago, eta erakundeko sailek sortzen duten dokumentazioa kudeatzeaz arduratzen da.

Funtzio nagusitzat du Museoak bere jardunean sortu eta metatzen duen dokumentazioa biltzea, antolatzea, deskribatzea eta kontserbatzea, baita herritarren, ikertzaileen nahiz erakundearen beraren eskura jartzea ere, eta bi helburu lortu nahi ditu horrekin: batetik, 19/2013 Legeak erakunde publiko guztientzat ezarritako gardentasuna bermatu nahi du, eta bestetik, Reina Sofia Museo Nazionalaren memoria kontserbatu nahi du, mundu osoan erreferentziatzeko erakundea baita arte garaikidearen arloan.

Aurkezpen honen bidez, erakunde publiko edo pribatu ororentzako funtsezko zerbitzu gisa aurkeztu nahi da artxiboa, eta ezagutzera eman nahi dira haren jatorria, funtsak, funtzionamendua, antolakuntza eta egungo nahiz etorkizuneko planteamenduak, nagusiki.

Reina Sofia Arte Zentroa Museo Nazional gisa eratzeko emandako 1988ko 535 Errege Dekretuan lehen aldiz aipatu zen artxibo-funtzioa, ikuspegi bikoitzarekin;

- Dokumentazio artistikoko artxiboa, Kontserbazio, Ikerketa eta Hedapeneko Zuzendariordearen mendekoa.
- Artxibo administratiboa, Museoko Gerentziaren mendekoa.

Dokumentazio artistikoaren artxiboa, artelanak erregistratzeko unitateak gordetzen duena, funtsezkoa da museorako. Bertan biltzen dituzte bildumako artelanen inbentarioa, eskuratzeko-espedituentzako (dohaintzak, erosketak, legatuak...) eta kanpoko erakundeetara eramandako artelanen zerrendak. Lehen urratsak egin dira sail horretako funtsak antolatzen hasteko.

Egungo lan-ildoan helburu nagusia hedapena indartzea da, bai barne-hedapena (Museoko langileak), bai kanpo-hedapena (ikertzaileak, ikasleak, herritarrak...). Horretarako, webguneko edukiak aberastu eta eguneratzen dira, Liburutegi Digitala proiektuak artxiboko funtsak digitalizatzen ditu eta funtsen deskribapenak sailkapen-taula funtzional batera egokitzen dira, Dokumentu Administratiboak Kalifikatzeko Goi Batzordeak 2017ko abenduaren 13an ezarritako jarraibide batzuen arabera.

Garapen-fasean dagoen azken ekimenetako bat funts berezien aurkezpena da, hala nola arkitekturakoena. Horiek bereziak dira bai formatuagatik, bai balio historikoagatik, eta data esanguratsuetan antolatutako ibilbideen bidez eman nahi dira ezagutzera (Arkitekturaren Astea 2020 edo Artxiboen Nazioarteko Eguna).

Beraz, artxiboak *marketin plan* bat garatzen du, helburutzat harturik hedapenaren kontzeptua aldatzea: alde batera utzi nahi du aurrez aurreko hedapen tradizionala, jardunaldi irekietan, bisita gidatuetan, praktika-hitzarmenetan eta horrelakoetan oinarritzen dena

nagusiki, eta proiektio birtualago bat lortu nahi du, kontsultak errazago eta bizkorrago egiteko aukera emateaz gain, Museoko langileei ulertaraziko diena zer-nolako potentziala duen artxibo-zerbitzuak. Aukera horrek ikusgaitasuna eta posizionamendua emango dizkio artxiboari erakundearen barruan, eta eguneroko funtzioak modu eraginkor eta efizienteagoan kudeatzeko funtsezko tresna izango da.